

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak herritarrak Eguberri hauetan Nafarroako elikagaiak kontsumitzera animatzen ditu

Reyno Gourmetek nekazari eta abeltzain gazteak protagonista dituen publizitate-spot bat zabaldu du

Martes, 15 de diciembre de 2015

Nafarroako Gobernuak, Reyno Gourmet markaren bidez, "Egunero, baita Eguberrietan ere... Nafarroako jakiak-alimentos navarros" izeneko kanpaina abiarazi du, herritarren artean Nafarroako elikagai-produktuen kontsumoa sustatzeko asmoz datozen Eguberrietan.

Kanpainaren ardatz nagusia nekazari eta abeltzain gazteak protagonistak dituen [sustapen-bideo](#) baten zabalkundea da, eta gazte horientzat lurra lantzea nahiz abeltzaintzan aritzea lan bat baino gehiago, bizimodu bat da. Spota egun hauetan emititzen hasi dira, eta urte amaiera arte emango dute Foru Komunitateko tokiko telebistetan (Navarra TV, Nafar TB, Zona Media TV eta Xaloe TB).

Bideoak [bertsio zabalagoa](#) du, eta [Reyno Gourmet](#) en webgunean ikus daiteke; ekoizle (abeltzainak eta nekazariak) eta kontserba-enpresetako langileen testigantzak jasotzen dira bertan. Bi ikus-entzunezkoak youtube.com helbidean topatu daitezke.

Kanpainaren barnean, gainera, iragarkiak sartuko dira prentsan eta aldizkarietan, aldizkari digitaletan, irratiaren eta kartelak jarriko kanpoko euskarrietan, markesinetan eta paneletan, adibidez. 41.000 euroko kostua du, eta aste honetan hasi eta urtea amaiera arte luzatuko da.